

ITSASU ITXASSOU

8

HERRI ALDIZKARIA URTARRILA 2023 JANVIER BULLETIN MUNICIPAL



Thauteriaik



Elurra



Bidetaz gogoeta koleliboa



Musikari beharriak kantari ezpanak

Zorionak 2023 ! gauden gogotsu nork gurea ekarriz Itsasu euskaldun hunen elkarbizitza indartzeko

Heureuse année 2023 ! restons motivés pour participer activement au confortement du vivre ensemble sur notre village euskaldun d'Itsasu

ÉDITO

Auzapezaren hitza



Herriko Etxeko kontseilari guzien izenean, Herriko langile guzien izenean, 2023 urterik hoberena itsasuar guziei.

Ez da zorion bila ibiltzerik munduaren beste buruan. Bada moldea gozatzeko bi ele eginez karrikan kurutzatu den auzoarekin, gure herriko xenderetan egiten diren urrats ixiletan, edo menturaz bere lehen urratsak bermatzeko eskuari lotzen zaitzun bosteko ttiki hortan.

Zergatik ez arriska zorionaren erranahi kolektiboagoa ? gure elkarteek antolatzen dituzten besta, kultur edo kirol ekitaldiak ez ote dira zorion zati ? hizkuntza bat eta lurraldetako elkarlan guziak ez ote dira zorion puska ? Ez ote dute zorion kotsurik eguneroko bihotzabala eta elkartasun ekintzatxo guziek, ordainaren axolarik gabe eskainiek !

Keinu ttikiak bezala borroka larriek txirikordatuko dute beste behin urte berria

Hotzak eta elurak egin dute beren agerraldia, baliteke urtaraoak ez direla sekulakotz desagertu. Bizi kostuaren goratzeak eta energiaren prezio igaite sutsuak min handia egiten dute jende ahulenen artean. Erretretako adinaren gibelatze mehatxuek altxatu dituzte herritarrak, gure hiru eskolak ere grebaz hetsiak egon direlarik urtarriaren 19an.

Urte hastapeneko herri aldizkari hau otsailean heltzen zautzue, Itsasuko dozier nagusien berri zenbaitekin. PLU inkestak, Balaki proiektuak eta herritarren eskaera nasaiak urtarri guzia hartu daukute. Itzuliko gira udaberrian herri aldizkari mamitsuago batekin eta ohizko lekuarekin herriko elkarteeri.

2023 urte zoriontsua denei, eta gauden gogotsu nork gurea ekarri Itxassou euskaldun hunen elkar bizitza indartzeko!

Mikel HIRIBARREN
Itsasuko auzapeza

Itsasuko Herriko Etxea - Mairie d'Itxassou
05 59 29 75 36 - Email : accueil@itxassou.fr
Site : www.itxassou.fr

Mise en page / Diseinua / Itsasuko Herriko etxea
Impression sur papier recyclé : Imprimerie Arizmendi

Au nom de l'ensemble du conseil municipal, au nom de tous les employés de la mairie, bonne année 2023 à tous les itsasuar.

N'allez pas chercher le bonheur à l'autre bout du monde. Vous pouvez l'apprécier dans le sourire que vous échangez avec le voisin dans la rue, dans le silence de la marche à travers les sentiers de nos quartiers, ou encore dans la petite main qui s'agrippe à la vôtre pour assurer ses premiers pas.

Pourquoi ne pas oser également une déclinaison plus collective du bonheur ? Toutes les animations festives, culturelles et sportives que portent nos associations s'y inscrivent. Les efforts partagés pour faire vivre une langue et son territoire y participent. Sans oublier les mille petits gestes de générosité et de solidarité de tous ceux qui donnent au jour le jour, sans attendre de retour.

Les petits gestes et les grandes causes vont encore tresser le quotidien de l'année nouvelle.

Le froid et la neige sont revenus, les saisons ne sont peut-être pas parties pour toujours. La hausse du coût de la vie et la flambée du prix de l'énergie font très mal dans beaucoup de foyers modestes. La menace du recul annoncé de l'âge de départ en retraite a mobilisé jusque dans nos trois écoles qui ont fermé ce 19 janvier 2023.

Ce bulletin de début d'année vous parviendra en début février, avec un point d'étape sur les principaux dossiers à savoir l'enquête PLU, le projet Balaki.

Les multiples sollicitations des itsasuar nous ayant largement occupés sur le mois de janvier, nous reviendrons au printemps avec un bulletin plus étoffé et les contributions habituelles des associations du village.

Heureuse année 2023 pour tous, et restons motivés pour participer au confortement du vivre ensemble sur notre village euskaldun d'Itxassou.

Mikel HIRIBARREN
Maire d'Itxassou



INTRAMUROS

Les nouvelles et événements d'Itxassou peuvent vous parvenir à toute heure. Il suffit de télécharger l'application intramuros sur votre téléphone portable sans oublier d'activer la notification.

<https://appli-intramuros.fr/>

Telekarga zazu aplikazione hori zure telefona mugikorrean. Herriko berri eta gertakari guzien jakinean izanen zira orenez oren.

AURKIBIDEA / SOMMAIRE

Auzapezaren hitza / Le mot du Maire

Nahas Mahas / Quelques infos

3

BERRIAK / ACTUALITES

Ibilmolde eztie bidea beribilk ukatu gabe / Cap sur la mobilité douce sans exclure la voiture	4
Txapelak eta urea : Aupa Jaunak !	4
Igogailua herriko etxeen eta liburutegian / Ascenseur pour mairie et bibliothèque	5
Tailer numerokoak / Ateliers numériques	5

HIRIGINTZA / URBANISME

Iragan da inkesta publikoan garaia / le temps de l'enquête publique est passé	6
Tresnak eskuan / L'outil en main	6
Balaki : laster eraikuntza baimena / Bientôt le permis de construire	7

ZOZIALA / SOCIAL

Eguberriko saskiak / Colis de Noël	8
Ravel berri bat balitz Itsasuko ikasleetan / Et si un nouveau Ravel grandissait à Itxassou	8
Eguberriko ikusgarria eskoletan / Spectacle de Noël des écoles	8
Olentzero 3 eskoletan / Passage d'Olentzero dans les 3 écoles	8
Gazteen aisiaaldi jarduerak / Activités de loisirs collégien	9

EGOERA ZIBILA / ETAT CIVIL

EGUTEGIA / AU PROGRAMME

OPOSIZIOAREN IRITZIA / EXPRESSION DE L'OPPOSITION

Oroimenaz hitzaldi eztabaida / conférence débat sur la mémoire	11
--	----

LEKUKOTASUNA / TEMOIGNAGE : Juliette Alfonso

Itsasuko ihauteriak	12
---------------------	----

Quelques infos / Nahas Mahas

Carte d'identité / Passeport

Pour toute demande de carte d'identité ou passeport, voici les mairies habilitées à instruire vos demandes
(*Anglet, Bayonne, Biarritz, Bidache, Hasparren, Hendaye, Mauléon, St Jean de Luz, St Jean Pied de Port, Saint Palais, Tardets-Sorholus*)

Le dépôt des dossiers se fait uniquement sur rendez-vous. Retrouvez les dates disponibles sur www.rendezvousonline.fr

Itsasuko Herriko Etxeak ezkaintzen ahal ez duen zerbitzua, nortasun ageri eta pasaporteen eskuratzearena. Huna hortarako zerbitzu onartuak diren Herriko Etxeak : (*Angelu, Baiona, Bidaxune, Hazparne, Maule, Donibane Lohizune, Donapalea eta Atarratzé*) Hitzorduz baizik ez da hurbiltzen ahal Herriko Etxetako zerbitzu horietarat. Egunak atxeman litezke kliatuz www.rendezvousonline.fr

Vente de bois

Il arrive régulièrement qu'aux abords de nos routes communales des branches ou des troncs d'arbres restent sur les talus après des opérations d'élagage ou d'abattage et menacent de tomber sur la voie publique. Les services de la mairie se chargeront de débarrasser ces bois qui seront ensuite vendus aux particuliers. Les personnes intéressées peuvent se faire connaître en mairie.

Aski ardura gertatzen da herriko bide bazterretan gelditzen direla zuhaitz adar edo enborrak, bereziki arbola xardekatze edo motzaldien ondotik, bide gainerat lerratzeko arriskua ere badutelarik. Herriko langileak arduratuko dira egur horien biltzeaz eta erostun diren herritarreri saltzeaz.


Iurbinttoko ohoinak

Elkar etxeak du argitaratu marrazki bizidun berri hau. Ehun bat orrian, Adur marrazkilariak gogora ekartzen du Itsasuko Altzieta etxaldean biltzen zen ohoin banda xelebrea.

Euskaldun gerlari ohiak eta Landesetatet harvesteratuak itzuli zirelarik, 1795 eta 1796 iraultza ondoko urteean, deserrian ibili zen herritar horietarik askok bere etxea egoilar berriez harturik ikusi zuen eta Altzueitan biltzen hasi ziren.

Orditik aintzina, Altzuetakoak antolatu ziren herritik urrundu zitztenez eta etxeak hartu zizkiotenez mendekatzeko. Gaeuko ilunetan ateratzen ziren mehatxatzeko, husteko edo su emateko Kanbo, Ezpeleta eta Itsasuko etxalde askori. Azkenean geldituak eta jujatuak izanen ziren erahil zutelakotz Uztaritzeko Mundutegi, Lapurdi barnekaldearen garbitzen hainbeste lehiatu zena.

le bataillon du carrosse



Cette bande dessinée en euskara vient de paraître chez Elkar. L'auteur, Adur, relate en une centaine de pages le souvenir d'une troupe de bandits qui s'était installée sur la ferme Alzuieta d'Itxassou (situated aujourd'hui dans la zone artisanale).

Sur les années 1795-1796, alors que les survivants étaient rentrés au pays après la guerre et les déportations des habitants de nos villages dans les Landes, certains soldats et exilés n'ont plus de chez eux et se retrouvent à Alzuieta.

A partir de là, ils s'organisent pour se venger de tous ceux qui ont contribué à les chasser ou qui ont profité de leur absence. Ils sortent la nuit pour menacer, piller, incendier de nombreuses fermes des villages d'Itxassou, Espelette et Cambo. Ils seront arrêtés et jugés quand ils seront accusés du meurtre de Mundutegi d'Ustaritz qui avait joué un rôle important dans la purge de ce territoire du Labourd Est.

BERRIAK / ACTUALITÉS

ibilmolde eztiei bidea beribilak ukatu gabe

Kargu berezia eskaini dio Herriko Etxeak Iurrealde kolektibitateen lagunten ibiltzen den IDcité aditu bulegoari, ekar dezan bere jakitorea ibilmolde iraunkorren eta ekintza plan eraginkorren finkatzen : ibilmolde guzien arteko diagnoztika, oinezkoen ibilmoldeak, txirrindularien ibilmoldeak, beribil trafiko ikerketak, eta zirkulazio plana bezala aparkaleku planak.

Itsasun ariko den Chaleroux jaunak helburutzat ezartzen du ibilmolde eztien kokatzea gogoetaren erdigunean: oinezko eta txirrindulazko ibiltari beratzenek leku betea atxikiz biribilak osoki baztertu gabe.

Bi sail badira aintzinikusiak eta 2023 urte hastapen hundarik abiatuko direnak :

Lehen saila : ikertu herri erdian ezarria izan den sentsu bakarreko ibilbidea eta 2022an erabiliak izan diren itzuliko bideak. Tailer mahain inguru bat antolatua izan da urtarrilaren 27an herriko hogoi bat lagunekin, eta ongi ordezkatuak izan dira karrika nagusiko eta itzuliko auzoetako egoiliarrak.

Bigarren saila : aterabide ezberdinak eta proposamen egingarriak aztertu, ibilmolde eztiek onartuko dituztenak, abiaduraren moteltzea edo bide antolaketa bereziak bezala.



cap sur la mobilité douce sans exclure la voiture

Une mission a été confiée par la mairie au cabinet IDcité qui accompagne les collectivités locales dans la formalisation de mobilité durable et la mise au point de plans d'actions opérationnels : diagnostic multimodal, plan piétons, réseau cyclable, études trafic, plan de circulation et de stationnement.

Mr Chaleroux qui intervient sur Itxassou a pour objectif d'inscrire les « modes doux » de mobilité au cœur de la réflexion, sans toutefois qu'une meilleure prise en compte des piétons et des usagers les plus vulnérables ne conduise à une exclusion de la voiture; réfléchir plutôt à un rééquilibrage mesuré des usages permettant de satisfaire l'ensemble des besoins.

Deux phases ont été prévues qui devraient être engagées dès ce début d'année 2023

Phase 1 : analyse du dispositif de mise en sens unique du Centre bourg et les voies de bouclage tel qu'expérimenté depuis l'été 2022. Une réunion atelier table ronde a eu lieu le 27 janvier avec une vingtaine d'habitants dont en proportion les représentants du centre bourg et des secteurs concernés par le contournement de karrika nagusia.

Phase 2 : évolutions possibles et propositions opérationnelles, qui intégreront les mobilités douces, les problématiques de modération de la vitesse et les propositions d'aménagements.



Txapelak eta urea : agur jaunak !

Battitt Ducassouk bigarren aldikotz eraman du mundu mailako esku huskako pilota txapelgoa .

Barzelonako jokoetan, 2018an, Battittek irabazi zuen urea buruz burukakoan Eneko Maizen kontra. Luis Sanchez zuen aldi huitan finalean kontrako. Irabazi dio ongi gostarik lehen mantxa. Bigarren mantxa aldziz labur jokatu da Battitten alde, eroriko tzar bat egin baitu Sanchezek. Nahagioko ginuen denek lehia bururaino joan balitz, baina urea Itsasurat biltzea ere guziz ederra da.

Balentria eskaini dauku berritz Battittek arats hortan berean kantxarat itzuli delarik Peio Larraldekin birazkako finalen jokatzeko Eneko Maiz eta Javier Luquinen kontra. Luis Sanchez ordezkatzen zuen Luquinek. Gure jokolariak ez dira alegiaz arizan, eta irabazi dituzte bi mantxak jarraian. Horrela dira upatu 2022ko urriaren 28 oroitgarri hortan munduko txapeldun izaterat Ducassou eta Larralde, eguerdian irabazia zituelarik Battittek buruz buruzkoen txapela eta urea.

Après sa médaille d'or remportée en 2018 à Barcelone en finale de la coupe du monde tête à tête trinquet contre Eneko Maiz, l'itsasuar Baptiste Ducassou a été couronné champion du monde de pelote à main nue trinquet à l'automne 2022.

Le 28 octobre Baptiste affrontait cette fois-ci, en tête à tête, Luis Sanchez. Après une première manche âprement disputée et remportée par Baptiste d'un seul point, la partie a tourné court quand le navarrais ne s'est pas remis d'une mauvaise chute en deuxième manche. Nous aurions tous préféré un duel victorieux jusqu'au bout, mais l'essentiel reste que l'or revienne à Itsasu. Baptiste a doublé l'exploit le soir même en disputant et remportant la finale du mondial de main nue en deux à deux en compagnie de Peio Larralde. Les adversaires sont à nouveau des joueurs d'Hegoalde, Eneko Maiz et Javier Luquin. Ce dernier a remplacé Luis Sanchez. Notre duo a mis du cœur à l'ouvrage pour l'emporter de deux manches victorieuses.

Le vendredi 28 octobre 2022 marque le sacre absolu du joueur de main nue en trinquet Baptiste Ducassou et restera dans les annales du club Itsasuarra.

igogailua herriko etxearen eta liburutegian

Azken hautetsaldian, 2014-tik 2020 artean, obrak eginak izan ziren Itsasuko Herriko Etxean. Orduan ziren sartzeko ate otomatikoak ezarri lekuaren, hurbiltzen delarik berak zabaltzen baitira.

Aterabiderik ez zen landu lehen solairuan den kontseilu edo eztei gelarat heltzeko. Oraingo herriko kontseiluak, bere talde ezberdinen adosean, erabaki zuen 2022ko ekainaren 21-ean igogailu baten ezartzea solairu hortarat heltzeko. Orduan berean deliberatu zen Hemen arxitekta bulegoari ematea obren kudeaketa.

Legeak behartzen ditu publikoa onartzen duten herriko gela guziak herritar guziei heltzeko moduan egokitzea, elbarrituak barne (2005-eko otsailaren 11-ko legea, dretxo eta aukera berdin aldekoa).

Herriko Etxeko igogailua harrera gibelean kokatuko da, eta jauzi batez eramanen du kontseilu gelarat bezala solairuan den liburutegirat.

Obra horien karietarat, egokitze lan batzu eginen dira baitaere Herriko Etxe beherean, berritz antolatzeko publikoaren harrera gunea eta bulegoen parte bat. Obrek hasi behar lukete 2023-ko udaberrian



ascenseur pour mairie et bibliothèque

Des travaux avaient été réalisés sur les locaux de la mairie lors du dernier mandat municipal. Ils consistaient en particulier à équiper de portes automatiques l'entrée de la maison commune : les portes vitrées s'ouvrent d'elles-mêmes à l'approche de toute personne valide ou handicapée.

Aucune solution n'avait été apportée à la problématique de l'accès de la salle du conseil municipal qui se trouve à l'étage de la mairie et qui sert aussi de salle des mariages. Le conseil municipal actuel, dans sa diversité de tendances, avait délibéré sur le sujet lors de la séance de conseil municipal du 21 juin 2022, en décidant de doter notre mairie d'un ascenseur intérieur, et en retenant le cabinet d'architecte Hemen en qualité de maître d'œuvre.

La loi impose que tous les établissements recevant du public permettent l'accès de tous les lieux publics pour toutes catégories de personnes dont bien sûr les personnes handicapées. (loi du 11 février 2005 loi pour l'égalité des droits et des chances)

L'ascenseur devrait trouver sa place derrière le comptoir d'accueil actuel, permettant d'accéder aussi bien à la salle du conseil qu'aux locaux de la bibliothèque.

A l'occasion de ces travaux, certains aménagements seront aussi réalisés au niveau du rez-de-chaussée de la mairie, pour permettre de réorganiser et d'optimiser tout l'espace accueil du public et une partie des bureaux. Le chantier devrait être engagé à partir du printemps 2023.

tailer numerikoak ateliers numériques

**LAFIBRE
64**

Le CCAS d'Itxassou organise un cycle de 4 ateliers numériques niveau débutant les mercredis 15, 22, 29 mars et 5 avril 2023.

Itsasuko GEUZ-ak antolatzen ditu lau egunerdi internet tresneria menperatzen conseillère numérique du hasteko: martxoaren 15, 22 eta 29-an. Apirilaren 5-ean.

Zuntza 64 sindikateko aholkulari batek animatuko ditu tailer horiek

Deneri idekiak, argibide eta izen emaitak Herriko Etxeko idazkaritzan: 05 59 29 75 36 edo accueil@itsasu.eus

Ces ateliers, ouverts à tous, seront animés par une tresneria menperatzen conseillère numérique du Syndicat La Fibre 64.

Information et inscriptions auprès du secrétariat de la mairie 05 59 29 75 36 accueil@itxassou.fr

iragan da inkesta publikoaren garaia le temps de l'enquête publique est passé

Euskal Herriko Hirigune Elkargoak gelditu zuen Itsasuko PLU hiri plangintza 2022-ko uztailaren 9-an, bere osoko biltzarrean.

Orditik, hiru hilabete bazuten PPA edo egitura publikoek gure herriko plangintzari buruz abisu baten agertzeko eta CAPB plangintza kudeatzaileari helarazteko.

Pau-eko auzitegi administratiboak zuen 2022-ko azaroan izendatu Michel Cazaubon inkesta publikoaren arduradun bezala. Inkesta bost astez iragan da, abendoaren 8-tik urtarrilaren 14-a arte, erreistro bereziak zabalik zirela Herriko Etxean eta internet gunean, Cazaubon jaunak berak lau egonaldi egiten zituela Itsasuko Herriko Etxean.

Herritarren ekarpene guziak denen ganik ikusteko moduan ziren interneteko errexistroan, baita paperezko ekarpeneak ere egunero ixuriak zirelarik internetekorat. Herritarren ekarpene gehienek nor banakoak bere eremuaren klasamendua aldatzea eskatzen zuten. Bide sentu aldaketa eta herri erdiko bideen erabilpena ere izan dira ekarpene andana baten gaia. Zenbait ekarpeneek bere betean kondenatu dute PLU herri plangintza hori. Ekarpene guzien artetik, ekarpene batek goretzi ditu PLU horren norabide nagusiak.

Inkesta publikoaren eramaileak badu otsailaren erdia arte bere txostenaren itzultzeko Hirigune Elkargoari. Ez da oraino ezaguna noiz erabakiko den Itsasuko hirigintza plana Euskal Herriko Hiri Elkargoaren osoko biltzarrean.



La Communauté d'Agglomération Pays Basque avait arrêté le projet de PLU le 9 juillet 2022 en séance plénière.

Les Personnes Publiques Associées, c'est-à-dire l'Etat, l'Autorité environnementale, les organismes professionnels et autres institutions, disposaient de trois mois pour produire leurs avis et les transmettre au maître d'ouvrage CAPB avant de soumettre le projet de PLU à enquête publique.

Le tribunal administratif de Pau a ensuite désigné le commissaire enquêteur Michel Cazaubon pour diligenter l'enquête publique. Celle-ci s'est déroulée du 8 décembre 2022 au 14 janvier 2023 avec :

- mise à disposition de registres sous format papier ainsi qu'en ligne sous format dématérialisé,
- quatre permanences de Mr Cazaubon en mairie d'Itxassou pour recevoir les personnes désireuses de le rencontrer.

Chacun aura pu prendre connaissance de l'ensemble des contributions via le lien internet spécifique qui permettait à tous d'accéder au registre dématérialisé, sur lequel chaque jour étaient aussi rapportées les contributions inscrites au registre format papier déposé en mairie.

La grande majorité des contributions a porté sur des demandes individuelles de modifications de zonage. La contestation du dispositif de sens de circulation a fait également l'objet d'un certain nombre d'observations. Plusieurs contributions ont condamné les orientations générales du PLU. Enfin une contribution positive largement favorable au projet de PLU émergeait singulièrement des demandes et observations diverses.

La date d'approbation de ce projet de PLU d'Itxassou en séance plénière de la CAPB n'est pas encore connue en ce début d'année 2023.

tresnak eskuan

Errobi lurradean gogoeta bat eremaiten ari gira, jakintza transmisio tailer baten sortzeko.

Asmoa da 9 eta 15 urte arteko gaztek, profesional aditu batzuen laguntzarekin, beren eskuz obrak egin ditzaten. Horrela, ikasturtean zehar, beren trebeziaz ohartuko dira eskulanak eginez.

Horretarako, eskulangileak edo eskulangintzan adituak behar ditugu, denbora hartuko dutenak eta gure herriko gazteei beren jakitatea transmititu nahi dutenak.

Ez duda, herriko etxeak eman zure izena, zuekin harremanetan jar gaitezen proiektu hau elgarrekin eraikitzeko.

l'outil en main



Une réflexion est en cours, pour créer un atelier de transmission de savoir-faire, sur le Pôle Errobi.

L'idée est de proposer à des jeunes de 9 à 15 ans de faire de leurs mains des ouvrages sur les conseils de professionnels chevronnés. Ils pourraient ainsi pendant l'année scolaire découvrir leur habileté et s'essayer à des métiers manuels.

Pour cela, nous avons besoin d'artisans ou de professionnels de métiers manuels qui ont du temps disponible et qui souhaitent transmettre leur savoir-faire à des jeunes de nos villages.

N'hésitez pas à vous faire connaître à la mairie pour qu'on puisse vous contacter pour construire ensemble ce projet.



Balaki laster eraikuntza baimena bientôt le permis de construire

"Hemen architecture" Balakiko obra kudeatzaile bezala hautatua izan zen zuen proiektu asmoari esker. Geroztik, Herriko Etxeko hautetsiekin eta ad'hoc batzordearekin barnatua izan da egitasmoa teknika, arkitektura eta gosta sariaren aldetik.

2023-ko urtarrilaren 10-ean, Herriko kontseiluak Balakirako bozkatu duen dirutza 1 532 603€koa izan da, ikerketa bulegoengastu eta obra kudeaketa sariez aparte, gelen barne muntaketez bestalde.

Urte berriko lehen hilabeteak izanen dira Balakiko plan definitiboen finkatzeko eta eraikitzeo baimenen eskuratzeko garaia. Urrats hauen jarraian antolatuko dira obrak burutuko dituzten enpresen bilatzeak eta hautatzeak, nehundik ahalaz obrak 2023-ko udazkenean abiatzeko.

Harreman eta gogoeta kolektiboek segitzen dute Balaki proiektuan partaide diren elkarteekin, finkatzeko barne funkzionamenduaren araudia eta Herriko Etxearekilako hitzarmenak.

Le maître d'œuvre « Hemen architecture » retenu au terme d'une consultation portant sur l'intention architecturale a travaillé avec les élus et la commission ad hoc pour proposer un avant-projet répondant aux attentes architecturales, techniques mais aussi financières. L'enveloppe votée en conseil municipal du 10 janvier 2023 contraint le montant des travaux de rénovation et extension de l'équipement à 1 532 603€ hors taxe, hors frais d'études et d'honoraires, hors aménagements internes des locaux.

Ce premier semestre 2023 devrait permettre de finaliser les plans et de déposer le permis de construire, ainsi que de réaliser la phase de consultation des entreprises pour être en mesure de commencer les travaux à l'automne de cette même année 2023.

La mairie sollicite au mieux des demandes de subventions auprès des services de l'Etat et des différentes collectivités publiques, sans exclure des demandes de participations à des partenaires privés.

Les échanges et les réflexions continuent également avec les associations concernées par les activités du Balaki pour définir le fonctionnement interne et les conventionnements avec la mairie.

SOZIALA / SOCIAL

eguberriko saskiak



Eguberri pestak baino lehenago, 80 urte edo gehiagoko adinetakoek eta Itsasuarrek, kokagunean bizi direlarik, hautetsien bisita ukana dute, eta GEUZen eta Herriko Kontseiluaren izenean, tokiko ekoizpenez osatua den pakete bat eman diete.

Arreta goxo horren bidez, herriaren esker ona bere administratuei trukatzeko eta markatzeko okasioa. Beraz, 133 saski banatuak izan dira.

Ravel berri bat balitz Itsasuko ikasleetan

Herriko Etxeak diruztatu du musika ikasketa bat Itsasuko hiru eskolentzat. Ikastetxe bakotxean gela bakar bateko haurrak izan dira lan huntan parte hartu dutenak. CMR elkarteko Amaia Hiriart izan dute sensibilizazio lan horren eramaile.

2023-ko urtarrilaren 27-an bururatu da aurtengo musika ikasketa saioa Amaia-rekin. Azken egun hortarako, partaide izan diren geletako haurrak ibili dira hiru eskoletan bakotxak landua zuen ikusgarri kantatu eta dantzatuaren aurkezten ikasle eta erakasle guziei, aro freskoarekin bainan elkargiro gozoan.



eguberriko ikusgarria eskoletan



Itsasuko 3 eskoletako ikasleak 2022ko abenduaren 12an eta 13an Eguberri pester karietara Itsasuko herriak eskaini ikusgarri batean izan dira Atharrin, Elirale konpainiak proposatutako "O!" ikusgarria. Dantza garaikideko Oihan Indart bakarrak taula gainean, Pantxiaka Telleriak koreografiatua. Kupulu puzgarri itxi baten gela bitxiaren aterbean zen ezenatokia, eta hunek berak sortzen zuen haurren jakinminia !

O! Mugimenduaren eta argiarekin duen loturaren bidez harridura pizten duen pieza da, keinu koreografiko abstraktu eta poetikoa. Eskerrik asko Elirale konpainiari eta Itsasuarra elkarteari Atharri ezker pareta erabiltzen uztea gatik.

Olentzero 3 eskoletan



colis de Noël

Peu avant les fêtes de Noël, les séniors de 80 ans et plus ainsi que les Itsasuar résidant en établissement, ont reçu la visite des élus qui leur ont remis, au nom du CCAS et du Conseil Municipal, un colis garni de produits locaux.

L'occasion au travers de cette attention, plutôt gourmande, d'échanger et de marquer la reconnaissance de la commune envers ses administrés. Ce sont ainsi 133 colis qui ont été distribués.

et si un nouveau Ravel grandissait à Itxassou

La mairie d'Itxassou a financé un apprentissage à la musique sur chacune des trois écoles de la commune. Sur chaque établissement, ce sont les élèves d'une seule classe qui ont profité de cette sensibilisation. Amaia Hiriart du CMR (Centre Musical Rural) a animé ces sessions musicales

Les sessions 2022-2023 d'Amaia se sont terminées le vendredi 27 janvier 2023. Ce dernier jour, les classes qui ont bénéficié de la formation musicale sont passées sur les trois écoles pour présenter le spectacle chanté et dansé à l'ensemble des élèves d'Itxassou. La météo était fraîche mais l'ambiance était chaleureuse.

spectacle de Noël des écoles

Les élèves des 3 écoles d'Itxassou ont assisté les 12 et 13 décembre 2022 à un spectacle offert par la commune à l'occasion des fêtes de Noël, en l'occurrence le spectacle "O!" proposé par la compagnie Elirale. Il s'agissait d'un solo de danse contemporaine interprété par Oihan Indart et chorégraphié par Pantxiaka Telleria, se déployant sous l'habitatcle surprenant d'un dôme gonflable clos (4m50 de hauteur) dans lequel les enfants curieux, furent impatients de pénétrer !

O! est une pièce qui investit l'émerveillement au travers du mouvement et de son lien à la lumière ; une gestuelle chorégraphique à la fois abstraite et poétique. Merci à la compagnie Elirale et à l'association Itsasuarra pour la mise à disposition du mur à gauche Atharri.

SOZIALA / SOCIAL

gaztentzat aisialdi jarduerak

Ukaezina da oporraldi batzuetan nerabeei proposatu jarduerek arrakasta eskasa izan zutela.

Hurbilagotik erantzuteko nerabeen nahikeriei, Itsasuko GEUZ-ek deliberatu du galdeketa zuzen bat igortzea aisialdi ohidurak eta gutiziak ezagutzeko.

75 nerabeei igorri inkestatik, 25 erantzun itzuli dira. GEUZ-eko gazte batzordeak azterten ari ditu erantzun hauk. Udaberriko oporraldietan baliteke jarduera eskaintza berririk.



activités de loisirs collégiens

Force est de constater que les animations proposées à certaines périodes de vacances à nos collégiens ne rencontrent que peu de succès.

Afin de cibler au mieux les attentes de nos adolescents, le CCAS a décidé de les questionner directement quant à leurs habitudes et leurs souhaits en termes d'offres de loisirs.

Sur 75 envois d'enquête, 25 réponses ont été obtenues, lesquelles sont en cours d'analyse par la commission « jeunesse » du CCAS. Des activités devraient être proposées aux vacances de printemps.

EGOERA ZIBILA / ÉTAT CIVIL

2022ko sortzeak / naissances

HIRIBARREN Joani 12/01/2022
FAVE GUICHARD Enéa Elise 28/01/2022
LINDNER de ARRIETA Andoni 23/02/2022
DUCASSOU IRUBETAGOYENA Kemen 26/02/2022
BOUDOIRE Odei Pascal 26/02/2022
BOUDOIRE Eneko Eric 26/02/2022
BOURGOIN Oihana 04/03/2022
SORRONDEGUI Kemen 20/03/2022
SANZBERRO Patxi 28/03/2022
MONDIN Gilen 25/04/2022
HIRIART-URRUTY Unai 01/05/2022
MOLIN Ekaitz 02/05/2022
LARRALDE ELDUYAN Miren 14/05/2022
BARBE Elaia 20/07/2022
HIRIART Alba Nerea 01/08/2022
LILLE Eydenn 22/08/2022
IPHARAGUERRE Naroa Jone 03/09/2022
MASSONDE Leire Samantha Lise 16/10/2022
SARAGUETA Oihan 13/11/2022
SOUADI Eren Bachir Jonathan 28/11/2022
DURAND Lou 13/12/2022

2022ko heriotzak / décès

PUENTE Dominique 01/01/2022
GARAT Bernard 27/01/2022
DARGUY Jean, Paul 04/02/2022
AGUERRE Jean 11/02/2022
URTHIAGUE Jean-Pierre 20/02/2022
BONNET Jean-Paul 27/02/2022
MEMBREDE née OLHAGARAY Catherine 02/03/2022
TESSIER Michel 11/03/2022
HARAMBILLET Bernard 06/04/2022
ISTILARTE Sauveur 18/04/2022
BORTHURY Bruno 08/05/2022
MACHICOTE née ERRAMOUN Gratianne 16/05/2022
POULOU née MENDIVIL Marie 21/05/2022

2022ko ezkontzak / mariages

ASPIROT Iñaki / BARRAULT Séverine 04/06/2022
ZUNDA Dominique / D'HERBEY Nathalie 25/06/2022
LANDABOUROU David / MAILHARRANCIN Eztitxu 25/06/2022
ISSALÈNE Bernard, Georges, Maurice / AGUERRE Edith 06/08/2022
ESAÏN Jonathan / BLANC Céline 27/08/2022
SAËZ Charles / VAQUERO Elorri 27/08/2022
CAUDAL Rémi, Jean / VALOIS Amanda, Mynna, Chris 17/09/2022
SALLABERRY Arnaud / PARMENTIER Anaïs 29/10/2022

P.A.C.S (PActe Civil de Solidarité)

La mairie d'Itxassou a enregistré 5 P.A.C.S pour l'année 2022

GRIS Germano 17/06/2022
HAINÇUBERRO Jean, Joseph 04/07/2022
MAGIS née LARRONDE Sabine 05/07/2022
ISSON née DESPERGERS Anne-Marie 12/07/2022
BORDA née HOUSSET Monique 11/08/2022
SALABURU Marcel 01/09/2022
DURRITÇAGUE née ELIZALDE Maria Guadalupe 02/10/2022
LE GARGASSON Alain 27/09/2022
LARTEGUY Michel 04/11/2022
ITHURRALDE Sophia 17/11/2022
SAINT-PAUL Joachim 21/11/2022
VILELLA BERETERBIDE Manel 05/12/2022

Egutegia / Au programme !

Otsalla / Février

04-05an / 11-12an / 18an

Ataitze
Itzasuko Ihauteriak / Carnaval
11an
Ataitze
Dantza ikusgarria / San pantzar

11an

Conservatoire d'espaces naturels
Chantier bénévole : mise en clôture
d'une zone humide
9h30 - Massif Artzamendi - Mondarrain
Infos au 05 59 70 58 37

21an

3 eskolen artean ihauteriak

Martxoa / Mars

05an

Itzas'Rock
Soirée Dantzaldia spécial crêpes
15h à 19h - Sanoki

Apirila / Avril

09an

Les Vieux Machins
Ganer huste / Vide grenier de printemps
Journée - Atharrin

Malatza / Mai

08an

APEL St Joseph
Lore merkatua / Marché aux plantes
Journée - Parking mairie

Mi mai

Lasai
Pala txapelketa / Tournoi de pala
Herriko plaza

27an

Bertsularien lagunak et IBIL
Bertsu finala / Finale de bertsu
Sanoki

Ekaina / Juin

03an

APEL St Joseph
Kontzeta / Concert avec le groupe
Izarrak - Eglise

04an

Itzasuarrak
Gerezi besta / Fête de la cerise
Journée - Atharrin

10an

Itsas'Rock
Soirée de fin d'année
19h - Sanoki

17an

Arrokagarai Ikastola
Hirukasko ibilaldia

17an

Tous en scène
Spectacle de théâtre de fin d'année
Soirée - Sanoki

24an

San Josep eskola
Fête des 60 ans - Atharri

Uztaila / Juillet

21etatik 24ra

Gau argi festibala
Défilé des enfants à Itxassou (22/07)

20-21-22-23an

Errobiko festibala
Atharri - Elizaldia

19-26an

Les Vieux machins
Asteazken iluntzetako merkatuak
Marché nocturne - Pelote
Herriko plaza

Agorria / Août

02-09-16an

Les Vieux machins
Asteazken iluntzetako merkatuak
Marché nocturne - Pelote
Herriko plaza

4an

Murtutsenia
Artzain yakur lehiaketa
Concours de chiens de berger
19h - Atharrin

17an

Kantu kontzertua Arragarekin
Concert avec Arraga
21h - Eglise

18-19-20-21-22-23an

Menditarak
Herriko bestak / Fêtes d'Itxasu

Iralla / Septembre

8an

Itsas'Rock
Journée portes ouvertes de rentrée
19h - Sanoki

10an

Itzasuko itzulia ibilaldia
Trail et marche

Mi septembre

Lasai
Finale du tournoi de pala - Fronton

23an

Ganer huste eta arrabestak
Vide grenier et Refêtes
Txistulari

Urria / Octobre

31an
Arimen gaua - Atharrin

Azaroa / Novembre

12an
Les Vieux machins
Ganer huste / Vide grenier d'Automne
Journée - Atharrin

novembre

APEL St Joseph
Seaska hustea / Vide pousette
Journée - Atharrin

Abendua / Décembre

02-03an
Arrokagarai ikastola
Eguberriko merkatua / Marché de Noël
Journée - Sanoki

Mi décembre

Arrokagarai ikastola - Olentzero

Don du sang

2023



Itxassou - Salle Sanoki

de 15h30 à 19h

FEVRIER
09 et 10

JUILLET
05 et 06

AVRIL
27 et 28

OCTOBRE
04 et 05

Sur RDV dondesang.efs.sante.fr

Les soirées conviviales du vendredi soir seront reconduites cette année

Tournoi de mus Union basque le jeudi 9 février. Inscriptions jusqu'au 6 février au 05 59 29 75 09

OPOSIZIOA / L'OPPOSITION

Elgarrekin Segi Aintzina

Chers Itsasuar.

L'année 2022 s'est achevée avec toujours une pandémie en toile de fond et une inflation galopante caractérisée notamment par une hausse importante des prix de produits de première nécessité. Notre village a connu aussi des événements douloureux avec un certain nombre de décès et nous pensons tout particulièrement aux familles de Sophia et Manel.

En ce qui concerne la vie communale, l'élaboration du nouveau Plan Local d'Urbanisme et la mise en place du schéma de voiries ont fait partie des questions préoccupantes d'actualités.

Nous avons dénoncé les incohérences et les contradictions de ce PLU, relaté certaines réalités quitte à déranger parfois. Le succès de l'enquête publique démontre l'intérêt que vous portez à ces sujets et vos réflexions nous confortent dans nos positions. Certains parmi vous nous ont rapporté la qualité d'écoute du commissaire enquêteur : à ce jour nous ne connaissons pas ses conclusions et quelles seront leurs réelles portées.

Dans le même ordre d'idée, nous avons été informé qu'un « Atelier tables rondes » est prévu fin janvier avec le bureau d'études IDcité sur les modifications du plan de circulation du centre bourg. Ici aussi, il est regrettable qu'une fois encore les participants aient été choisis et que cette réunion ne soit pas publique.

Pour 2023, nous formulons nos vœux de santé et de bonheur pour vous et vos proches, sans oublier de la solidarité de plus en plus nécessaire par les temps qui courent.

Notre groupe continuera à rester à votre écoute, maintiendra sa vigilance quant aux décisions prises par la majorité municipale et vous avisera autant que nécessaire de ses points de désaccords.

Urte berri on deneri.

Le groupe « Elgarrekin Segi Aintzina » (Denise Machicote, Marie Hélène Iturbura, Jean Paul Iturbura, Xavier Belleau)

2022ko urtea oraindik ere pandemiarekin bururatua bai ta ere hazkunde haundi batekin, bereziki kontsumo arrunteko salgaien preziokin. Gure herriak ere gertakari mingarriak bizi izan ditu hainbat heriotzerekin eta partikularki Sophia eta Manel familietan.

Herriko bizitzari dagokionez, Tokiko Hirigintza Plan berriaren garapena eta herri bideen eskema ezartzea izan dira gaur egungo kezkak.

PLU honen desbideak eta kontraesanak salatu ditugu, zenbait errealtitate agertu, nahiz eta batzuetan kezkagarria izan diren. Konsulta publikoaren arrakastak gai hauetarako duzuen interesa erakusten du eta zuen pentsamenduek gure jarrerak indartzen dituzte. Zuetarik batzuek erran diguzue ikerketa-komisarioaren entzutearen kalitatea: gaur egun ez dakigu haren burrapenak eta zer izanen diren ondorioak.

Jakinarazi daukute ere, Urtarril hondarrean IDcité diseinu bulegoarekin "Mahai-inguru tailerra" antolatuko dela herriguneko trafiko-planaren aldaketen inguruan. Damu da berriz ere parte hartzialeak hautatuak izan direla, bilkura hau publikoari idegia ez izatea.

2023rako, osasun eta zoriontasun desioak adierazten dizkizuegu zuei eta zuen familiari, garai hauetan gero eta beharrezkoagoa den elkartasuna ahantzi gabe.

Jarraituko gira zuen eskakizunen entzuten, gehiengoak hartutako erabakien zaintza seigituko dugu eta puntu desadostasunen berri emanen dizuegu.

Urte berri on deneri

“Elgarrekin segi aintzina” taldea

Elgarrekin Segi Aintzina taldea. (Denise Machicote, Marie Hélène Iturbura, Jean Paul Iturbura, Xavier Belleau)

oroimenaz hitzaldi eztabaidea / conférence débat sur la mémoire

Oroimena ainitza da. Bada autobiografiko eta enziklopedikoa, tronbinozkopiko eta ipar orratz da denboran eta espazioan. Gure nortasuna oinarritzen du gure ikasteko moldetan.

Nola elgar laguntzen dute burumuinak eta inguramenak oroitzapenen sortzeko?

Itsasuko CCAS-ak antolatzen duen gaualdi hitzaldi- eztabaidea Sanokin, 2023-ko martxoaren 23-an, Nicole Etxamendi neuro zientzialariak aurkezturik.



La mémoire est plurielle. Elle est autobiographique, encyclopédique, tronbinoscope et boussole dans le temps et l'espace. Elle ancre notre identité au centre de nos apprentissages.

Comment le cerveau interagit avec l'environnement pour fabriquer des souvenirs ?

Une soirée-débat animée par Nicole Etxamendi, chercheuse en neurosciences est proposée par le CCAS le jeudi 23 mars à 19h à Sanoki. (entrée gratuite).

témoignage / lekukotasuna

Juliette Alfonso



Zortzi urtez ibili ondoan kontzertutan tauladaz taulada, Madagazkar eta Afrikako soinu kolorez kantari, Pauline eta Juliette-k bakotxak bere bidea jorratu nahi dute, garai batez bederen.

Juliette ari da oraingoan ikusaldi antzeztu baten sorkuntzan. Bere kantuak soka musika tresnez jauntziko dira eta andere batek dantzatuko du kantuen haritik.

Egon da ikusaldi horren jasta Baionan 2023-ko urtarrilaren 20-an, « Hors lit » gunean.

« Méchante compagnie » elkarrean du antolatzen ikusgarria. Juliette-k berak dionaz « esperientzia hunkigarria izan da, intimista, eta publikoaren parte hartza bihotz altxagarri ».

Ikusgarria prest izanen da 2024-eko urtarilekotz.

Berantetsia dugu

Jakiteko : « hors lit » gunea denei idekia da. Aski da izenaren ematea facebook-ez « hors lit de Bayonne-n ». Gaualdi beraean, ibiltzen ahal da lau gune ezezagunetan, eta lau artista ezberdiniekin.

itsasuko ihauteriak



Naturaren atzartzeko garaia idekitzen dute ihauteriek aurten ere Kaxkarrotak auzoz auzo, etxez etxe ibilikio dira otsaileko lehen hiru asteburutan.

(*intramuros-en egitarau zehatza*)

Otsailaren 11-an Atharri-n: dantza ikusgarria eta San Pantzarren auzia.

Kaxkarrotek gaztiatzen dute aspaldi huntan ateak idekitzen dizkioten etxetan geldituko direla, eta gogotik hartuko lituzketela geldi gune berriak.

Après 8 ans de Kantaldi, de concerts de scènes en scènes, d'albums comme « veloma » (2020) teinté de couleurs Africaines Malgaches, Pauline et Juliette prennent pour un temps des chemins différents.

Aujourd'hui Juliette travaille à la création d'un spectacle théâtralisé. Ses chansons seront habillées d'instruments à cordes et une danseuse évoluera sur ses titres.

Une amorce de ce spectacle s'est déroulée le 20 janvier à Bayonne dans le cadre du « Hors Lit »

Performance organisée par la « Méchante compagnie ». « L'expérience a été très émouvante, intime et le retour du public très encourageant » confie Juliette.

Le spectacle sera prêt en janvier 2024.

On a Hâte !!!

Pour info : L'expérience « Hors Lit » est ouverte à tous. Il suffit de s'inscrire sur Facebook « hors lit de Bayonne ». Au cours d'une soirée, vous suivrez un itinéraire en découvrant 4 lieux tenus secrets et 4 artistes différents.

Les kaxkarrot d'Itsasu feront la tournée des quartiers sur les trois premières fins de semaine de février 2023.

(détail des déplacements sur *Intramuros* ou site internet de la Commune)

Le 11 février 2023 à Atharri: spectacle de danse et jugement de San Pantzar.

Les Kaxkarrot ont leurs haltes habituelles sur les maisons qui les reçoivent depuis longtemps et sont aussi preneurs de nouvelles invitations individuelles ou collectives.